



2020/10/29KO UDALBATZAREN OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Eguna: 2020/10/29
Hasiera ordua: 19:00
Amaiera ordua: 19:40

Bertaratuak:

Lehendakaria:

Lierni Altuna Ugarte . alkatea- (EH BILDU)

Zinegotziak:

EH BILDU UDAL TALDEA:

Maria Cristina Etxenausia Irure

Iban Herrarte Arana

Oihana Ameskoa Perez

Santiago Balantzategi Beitia

Ana Maria Martiarena Arregi

Gorka Astondoa Altuna

EAJ/PNV UDAL TALDEA:

Juan Antonio Peña Orobengoa

Ez bertaratuak:

Pedro Elosegui González de Gamarra

Idazkaria:

Bittor Agirreurreta Murgia

Aramaion (Ibarran), Udaletxeko bilkura aretoan, goian aipatutako egun eta ordua denean, lehenengo deialdian goian aipatzen diren zinegotzi jaun andreak bildu dira Udal Plenoaren ohiko bilkura burutzeko objektuaz, Lierni Altuna Ugarte Alkate-Lehendakaria Lehendakari dela. Bilkura honetara Udalaren idazkari-kontuhartzailea, Bittor Agirreurreta Murgia, bertaratu da.

Lehendakariak, quoruma dagoela egiaztatuta, hasiera eman dio bilkurari eta aztergaien zerrendan jasotako gaiak jorratzeari ekin dio Udalbatzak:



Bilkura hasi aurretik, alkateak jakinarazten du presazko gai bat sortu dela deialdia banatu ondoren eta, udalbatzan hortaz aritu aurretik, ordea, gai zerrendan sartu ahal izateko, gai horren urgentziazko izaera bozkatu beharko dela. Sartu nahi den gaia da, %SKAERA ARAMAIOKO OSASUNEN LEHEN MAILAKO ARRETA ZERBITZUARI BURUZ+ Laburbilduz, herritarren artean kezka sorrarazi du, osasunaren lehen mailako arreta zerbitzuaren egoerak. Batetik, gaur egun, Aramaiok ez du egun osoko jardunaldia egiten duten ez mediku, ez erizainik; eta, bestetik, kontsulta gehienak telefonoz egiten direnez, urgentziazko zerbitu denean, Arrasateko ospitalera joan beharra sortzen dela. Horren aurrean, kexa azaldu eta konponbidea eskatu nahi da.

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin, aho batez, gaiaren URGENTZIA ONETSI eta gaurko bilkurako gai zerrendan sartzea ONARTZEN du.

1. ONARTZEA, BADAGOKIO, AURREKO BILKURAKO AKTA.

Alkate-Lehendakariak 2020ko irailaren 24an ohiko bilkurako aktaren gainean inork oharririk ote duen galdetu du.

Inork akta horiei buruz oharpenik ez duenez, lehendakariak aktak onartzeko bozketa deitu du eta aho batez onartu dira, 2568/1986 Errege Dekretuaren, azaroaren 28koaren, Toki Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenaren 91. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Udalbatza, besterik gabe, azken ohiko bilkuratik egin diren dekretuen jakitun gelditu da (283/20tik 351/20ra).

3. ONARTZEA, BADAGOKIO, HASIERAKO ONARPENA EMATEA 2021 URTERAKO ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETARI.

Alkateak adierazten du, jakina denez, egoera ekonomiko-finantzarioa asko ahuldu da mundu mailan, jasaten ari garen COVID-19 pandemiaren ondorioz. Hartara, 2021 ekitaldirako ordenantza fiskalak daudenetan uzteko asmoa dagoen arren, bai antolakuntza eta ogasun batzordeak, bai zerbitzu batzordeak, Udal Hilerri zerbitzuarengatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen ordenantzan aldaketa pare bat egiteko proposamena egin dute. Batetik, 2008az geroztik aldatu gabeko tasa delako; eta, bestetik, zerbitzuaren egutegi eta ordutegiak zehazten ez direnez, horiek zehazteko beharra ikusi delako, horren inguruan sortutako kezka eta definizio gabeziarekin amaitzeko.

Beraz, alkateak aurkezten du antolakuntza eta ogasun batzordeak udalbatzari egindako proposamena: 2008tik indarrean dauden tasak eguneratzea, dagokion KPIaren aldaketa oinarritzat hartuz. Aldaketa hori, EUSTATen arabera, tasaren %13,27ko igoera dakar. Hau da:

2008tik dauden tasak	2021ko urtarrilaren 1etik aurrera (%13,27ko igoerarekin)
Hilkutxa 128'18€	Hilkutxa 145'19€
Errautsen ontzia 49'92€	Errautsen ontzia 56'54€

Ondoren, Iban Herrarte zinegotziari, zerbitzuen batzordeburuari, hitza eman eta horrek, aurkezten du zerbitzuen batzordeak egiten duen ordenantza aldaketa proposamena. Aldaketa proposamenak egutegia eta ordutegia zehazteari eragiten die. Horretarako, artikulua berri bat gehitzeko beharra dago, 22 bis artikulua eta bere testuak ondorengo jasoko du:

22.bis. artikulua.- Egutegia eta ordutegia.

- 1. Ehorzketa lanak egingo dira asteleheneetik larunbatera (biak barne). Igande eta jai egun ofizialetan ez da ehorzketa lanik egingo, legezko salbuespen eta larrialdiko egoerek behartutako egoeretan izan ezik.*
- 2. Ordutegiari dagokionez, urtea bi sasoitan banatuko da, uda (maiatzaren 1etik irailaren 30era) eta negua (urriaren 1etik apirilaren 30era). Udako sasoiari, ehorzketa lanak beranduenez 19:30etan hasiko dira. Neguko sasoiari, aldiz, ehorzketa lanak beranduenez 18:00etan hasiko dira.+*



Besterik gabe, aurkezten du Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak eta Zerbitzuen Batzordeak Udalbatzari egiten dioten erabaki proposamena, 2021eko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko diren ordenantza fiskalen aldaketari buruz:

Í Lehena.- Onartzea aldaketa egitea Udal Hilerri zerbitzuarengatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen ordenantzari. Hartara, eranskinean horrela dion lekuan:

%ARIFA: Hilobiratzeagatik eta hilobia esleitzeagatik ordaindu beharreko tasa:

- *Hilkutxa: 128,18.-"*

- *Errautsen ontzia: 49,92.-" +*

Horrela eguneratuko da:

%ARIFA: Hilobiratzeagatik eta hilobia esleitzeagatik ordaindu beharreko tasa:

- *Hilkutxa: 145,19.-"*

- *Errautsen ontzia: 56,54.-" +*

Bigarrena.- Onartzea artikulua berri bat gehitzea Udal Hilerri zerbitzuarengatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen ordenantzari, zerbitzuaren funtzionamendua zehazte aldera:

%2. bis. artikulua.- Egutegia eta ordutegia.

- 1. Ehorzketa lanak egingo dira asteleheneetik larunbatera (biak barne). Igande eta jai egun ofizialetan ez da ehorzketa lanik egingo, legezko salbuespen eta larrialdiko egoerek behartutako egoeretan izan ezik.*
- 2. Ordutegiari dagokionez, urtea bi sasoitan banatuko da, uda (maiatzaren 1etik irailaren 30era) eta negua (urriaren 1etik apirilaren 30era). Udako sasoiari, ehorzketa lanak beranduenez 19:30etan hasiko dira. Neguko sasoiari, aldiz, ehorzketa lanak beranduenez 18:00etan hasiko dira.+*

Hirugarrena.- Uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauko 16 artikuluan ebatzitakoarekin bat, jakinaraztea behin behineko izaeraz onartu diren zerga ordenantza eta tasak arautuko dituen ordenantzako testua, apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 49.b). artikuluan erabakitakoarekin bat (41/1989 Foru Arauko 50. artikuluaarekin bateratsu), jendearen eskura jarrita daudela, udaletxeko bulego orokorrean, 30 egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, interesdunek egoki irizten dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Laugarrena.- Jakinaraztea, halaber, erreklamaziorik ez badela aurkezten erakustaldi publikoaren epearen barruan, erabakia behin betiko onartutzat hartuko dela.+

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin, aho batez, Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

4. MOZIOA: Í ORAIN ARDURAÍ .

Alkateak aurkezten du **%Orain ardura+** izendaturiko ekimen herritarrak udalari helarazitako dokumentua. Testuak, hitzez hitz, horrela dio:

"Nik, Iñigo Leza Pesquera, 44682469R NAN zenbakiarekin eta Dotalar 1 kalea Araia (Araba) helbidearekin "ORAIN ARDURA" herritarren ekimenaren izenean honako mozio hau aurkezten dut Udalaren aurrean:

Aste luzeetako sufrimenduaren ondoren, gure senideak erabateko bakardadean hil direnean, pandemiaren aurkako borrokan ospitaletako langileek larria lan-baldintza kaskarretan utzi dutenean, egoerari aurre egin ahal izateko adinekoren egoitzetako langileek ezinezkoak egin dituztenean, amasgailurik ez zegoenean gaixorik dauden pertsona guztientzat edo testak eta babes-ekipoak falta izan direnean, gizartearen portaera eredu garria azpimarratu egin nahi dugu. Horrelako egoera zailen aurrean, kontaezinak izan diren elkartasun ekimenekin.

Gizarteak erantzukizun handiz jokatzeko ari da krisi larri honetan, eta berak markatzen digu jarraitu beharreko bidea. Horregatik, etorkizun zalantzagarriaren aurrean, erakundeei eskatzen diegu egoerak eskatzen duen mailan egotea, erantzukizunez jokatzeko eta orain, inoiz baino gehiago, dirua oinarritzko gizarte-zerbitzuetara eta krisia bereziki pairatu duten sektoreentzako laguntzetara bideratzeko. Honengatik guztiarengatik, "ORAIN ARDURA" ekimena bultzatu dugun pertsonak, elkarteak eta sindikatuek erakunde eta administrazio publikoari eskatzen diegu Abiadura Handiko Trenaren obra eta proiektuetan gastatzen ari diren funts publikoak oinarritzko behar horietara bideratzeko, honako argudio hauetan oinarrituta:



Espainiako Estatuak munduan abiadura handiko treneko kilometroetan milioi bat biztanleko kilometro gehien duen estatua da, Japonia, Alemania, Frantzia, AEB eta beste hainbat herrialderen oso aurretik. Hala eta guztiz ere, azken tokian dago erabilerari dagokionez, eta kilometroko bidaiari-ratio baxuena du. Gainera, gogorarazi behar dugu sustapen ministerioaren datuen arabera, bidaiarien %6k baino ez duela erabiltzen habiadura handiko tren; ohiko tren, berriz, %94 erabilera du.

Gaur egun, Araban, AHTko hiru linien proiektua eginda daude eta ingurune-inpaktuen ebaluazioen zain daude: Burgo eta Gasteiz arteko linea, 1.200 milioi euroko kostuarekin, Gasteizko sarrera eta lurperatze partziala 872 milioi euroko kostuarekin eta Gasteiz eta Iruñea arteko linea 850 euroko kostuarekin. Guztira, gainkostuak ez badira gertatzen, ia 3,000 milioi euro. Krisi-une honetan, eta aurreikuspenak kontuan hartuta, garrantzitsua da diru guzti hori gizarte-premia oinarrikoenetara bideratzea.

Beraz eta adibide gisa, azpimarratu behar da Gasteiz eta Iruñea arteko AHT-lineak balio duenarekin duela urte eta erdi inauguratu zen Eibarkoa bezalako 32 ospitale eraiki litezkeela. Gainera, kontuan hartu behar dugu, AHT lineak eraiki ordez, gaur egungo trenbideak berri eta egokitu daitezkeela, kostu askoz txikiagoetan eta horrela herriak, hiriak eta industrialdeak lotzen dituen tren sozial bat izango genuke pertsonak nahiz salgaiak garraiatzen dituen, lurraldea egituratuz, gune oso isolatuak utzi gabe, eta edozein pertsonarentzat ekonomikoki eskuragarria dena.

Azpiegitura hauek milioi askoko inbertsioak eskatzen dituzte eta, bitartean, murrizketa handiak egin dira oinarriko zerbitzuetan, hala nola, osasunean, hezkuntzan edo hainbat gizarte-zerbitzuetan. Hori dela eta, osasun-krisi izugarri honetan egunero ikusi ditugu ospitaleak gainezka, osasun-langileak txandak bikoizten, adinekoen egoitzak beren zorian abandonatuta, jendea bakardadean hiltzen, hotelak ospital bihurtuak, etxeetan maskarak eta kareta egiten, eta abar. Ezinbestekoa da azpimarratzea lan horietako gehienak emakumeek egin dituztela, kolektibo bera gizarte honek baztertu egiten duena. Beraz, pertsonen bizitzari eta elkarrekiko Zaintzari eusteko behar diren lanen garrantzia aitortu behar da, baina, zoritxarrez, alderdi horiek ere baztertu egiten dira aurrekontuen arloan.

Gainera, milioi askoko inbertsio horiek milaka lagunentzako laguntzak eragozten dituzte, bai negozio txikiei eusteko, bai langabezia dauden eta baliabide falta duten pertsonentzako laguntzak izateko, bai eskolak hobetzeko, bai irakaslearekiko ikasleen ratio txikiagoa izateko, besteak beste. Azken finean, sektore ahulentzako eta, oro har, gizarte osoarentzako laguntzak murriztearen eta ezabatzearen kontura diru-kutxak husten dituzten inbertsioak dira.

Ildo horretan, uste dugu estatu osora zabaldu behar direla Isabel Pardo de Vera ADIFeko presidentearen jarduerak, otsailean Oviedo, Avilés eta Gijón abiadura handiko konexioa baztertu zuenean, "konexio horiek denbora aurrezteko 10 minutu besterik ez luketelako izango, milioi askoko inbertsioarekin". Ildo beretik, komeni da azpimarratzea Abalos ministroak esan zituen hitz zentzudunak kargua hartu zuenean. Orduan gobernuaren apustu berria iragarri zuen: "trenbideko inbertsioak erabat birbideratzea, urte askotan abiadura handian zentratuegiak egon direlako". Pedro Azpiazu, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun sailburuaren hitzak ere aipatu nahi ditugu; orain dela gutxi "gastu publikoa murriztu eta obra handiak atzeratu beharko liratekela" esan zuen.

Gaur egun, mundu guztiak hitz egiten du datorren krisi latzaz eta zerga-bilketa %20 jaitsiko dela esaten ari dira. Orain, ekoizpena birkokatzearen eta mugikortasuna murriztearen aldeko apustua egiten ari garenean, ezin dugu jarraitu ezer gertatzen ari ez balitz bezala.

Ondorioz, krisi sozial eta ekonomikoko une hauetan, AHTrako inbertsio ekonomikoko guztia premiazko eta lehentasunezko gaietara bideratzea eskatzen dugu, hala nola, behar adina langile eta baliabide dituen osasun publikoko sistema batera; adinekoen, mendekoen eta beraiez arduratzen dituztenen kalitateko zainketara; bidezko pensioetara; pertsona guztientzako oinarriko diru-sarreretara; kalitatezko hezkuntza publikora; kalitatezko gizarte-zerbitzuetara; zainketen balorizazioa; edo Covid-19aren krisiak larriki kaltetutako sektoreetako pertsonak babestera, besteak beste, merkataritza txikia, kulturaren mundua, etabar.

OSOKO BILKURAK HARTU BEHARREKO ERABAKIAK:

1.- Udal honek Eusko Jaurlaritzari eta Espainiako gobernuari eskatzea, krisiaren ondorioak arintzen laguntzeko, handitu ditzatela oinarriko gizarte-zerbitzuetarako eta krisiak eragindako sektoreentzako laguntzetarako aurrekontu-partidak, eta, horretarako, Abiadura Handiko Trenaren obretarako eta proiektuetarako erabiltzen diren funts publikoak erabil ditzatela, gelditu egin beharko liratekeenak.

2.- Hartutako erabakien berri ematea Espainiako Gobernuko Sustapen ministroari, Eusko Jaurlaritzari eta Komunikabideei.

Araian 2020ko ekainaren 18an."



Juan Antonio Peña Orobengoa zinegotziak hitza hartu eta adierazten du, ez dagoela ados mozio bezala aurkezten den asmo proposamen horrekin, azken finean, administrazio baten aurrekontu batzuetan jasotako gaiez ari dela, konpromiso batzuk hartuak izango direla eta horien aurka egin edo aldaketa eskatzeko, hau ez dela bide onargarria.

Alkateak erantzuten dio, ez zaiola bidezkoa iruditzen egungo egoeraren aurrean, esaterako, hezkuntzan, osasungintzan, lan munduan, eta abar sortutako beharren aurrean, dirutza handiak xahutzea abiadura handiko trenaren proiektuan.

Besterik gabe, Bozketa deitu eta Udalbatzak, EH Bilduko udal taldearen zinegotzien (7) aldeko botoarekin eta EAJko zinegotziaren (1) aurkako botoarekin, %60rain ardura+ izendaturiko ekimen herritarrak proposatutako mozioa ONETSI DU.

5. MOZIOA: AZAROAK 25, EMAKUMEAREN AURKAKO INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO EGUNA.

Alkateak hitza ematen dio Gizarte Ongizate Batzordeburuari, Cristina Etxenausia Irure zinegotziari. Zinegotziak mozioaren nondik norakoak azaltzen ditu, konpromisoen atala azpimarratuz. Testuak horrela dio, hitzez hitz:

“AZAROAREN 25EKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA: EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA.

Azaroaren 25a dela eta, Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Egunean, indarkeria matxistatik libre egongo den jendartea eraikitzearekin Aramaioko Udalak duen konpromisoa berretsi nahi dugu.

Era berean, nazioarteko marko juridikoarekin bat eginez, berriz azpimarratu behar dugu badagoela loturarik genero-arrazioengatik bazterkeria eta desberdintasunen eta emakumeen aurkako indarkeriaren artean, azken hori emakumeen aurkako indarkeria giza-eskubideen urraketa bat bezala ulerturik.

Azken urteotan, aldaketa nabariak gertatu dira emakumeen eta gizonen arteko harremanetan. Hala ere, aurrerapenak aurrerapen, sarritan ikusten dugu harreman horiek gure jendartean errotutako desberdintasunean eraikitzen jarraitzen dutela, eta desberdintasun hori erreproduzitzen eta iraunarazten duten eguneroko jarretan agertzen dela. Harreman horiek emakumeenganako zapalkuntzan eta botere-harremanetan oinarritzen dira oraindik ere.

Emakume eta gizonen arteko desberdintasun testuinguru horretan kokatu behar ditugu eraso matxistak; horietako batzuk hain normalizatuak eta errotuak daudenak, antzematea ere zaila bihurtzen dela.

Gaur egungo egoeran, ezin da ukatu Covid-19 pandemiak eragin duen egoera sozio-ekonomikoa eta politiko larria. Pandemia egoerak, berriz ere, ez dio berdinean eragiten mundu guztiari, emakumeak eta neskek krisi honek utzitako efektu negatiboan aurrean arrisku gehiago dituzte.

Zergatik? Zaurgarritasun egoeran zeuden pertsonak (lan prekarioetan, etxebizitzarik gabeko pertsonak, aniztasun funtzionala edo gaixotasun kronikoak dituzten pertsonak, adinekoak, migratuak...etab.) zaurgarriagoak bihurtu dituelako. Hau horrela, genero ezberdintasunak azaltzen du talde hauen barruan emakumeak eta neskek krisi honen aurrean arrisku gehiago dituztela, diskriminazioari, indarkeriari eta eskubideen urraketa dagokionez.

Bestalde, ezinbestekoa da aipatzea jendartea zaintzeaz arduratu direnen gehiengoak emakumeak izan direla egoera honetan ere; esparru sozio-sanitarioetako eta beste sektore ekonomiko giltzarri batzuetako langileetan duten pisuagatik, baina baita emakume horiek eta beste askok etxeetan egin dituzten doako zaintza- lanengatik ere.

Testuinguru honetan, osasun-larrialdia dekretatu zenetik eta, horrekin batera, konfinatzeko betebeharrak ezarri zenean emakume eta haur asko haien erasotzaileekin denbora gehiago egotera behartu zitzaizkien, dakigunean erasotzaileekin bizi diren emakume eta haur askorentzat etxea dela egoteko lekurik arrakatsuenak.

Egoera honen aurrean Emakumeen aurkako Indarkeriaren Biktimentzako Telefono bidezko Arreta-Zerbitzuaren (SATEVI) esku-hartzeak %10,5a egin zuten gora itxialdi garaian¹.

Nahiz eta arazo sozial honen tamaina erreala zifra ofizialetan ez islatu, krisiaren aurretik EAeko emakume askok indarkeria jasateko arriskua zeukatela bagenekien. 2019an, 3.098 emakume erasotu zituen bikotekideak edo bikotekide ohiak EAEn eta beste 899 bere familia- inguruneke beste gizonetako batek. Hamar erasotatik bederatzia familia-esparruan gertatu ziren.



Halaber, Foru Aldundiek eskaintzen duten arreta psikologiko espezializatuetan zerbitzuen jardura esanguratsua izan da: 5.963 esku-hartze egin dituzte: 1.533 kasu aktibori erantzun die, eta 332 kasu berriren esku-hartzea hasi dute itxialdia eta gero².

Ahaztu gabe Euskal Herrian 2003tik urtetik hona 106 emakume eta 11 haur erail dituztela. Euskal Herrian 4 emakume erailak izan dira 2020an³.

Egoera honen aurrean, Aramaion ondokoak gauzatzeko konpromisoa hartzen dugu:

1. Prebentzio, sentsibilizazio eta arreta zerbitzuen funtzionamendu egokia eta indarkeria matxistaren aurreko erantzuna mantentzea eta lehenestea, zerbitzu hauek funtsezko zerbitzuak direla bermatuz. Eta zerbitzu hauek sendotzen eta hobetzen joatea udalaz gaindiko instituzioekin batera.
2. Ekimen kolektiboek laguntza eman (laguntza-taldeak, plataformak eta mugimendu feministak), hartara bizirik irtendako emakumeek indarkeria horri buruzko errelato kolektiboa landu dezaten eta hautsitako eskubideak zein erreparazioa aldarrika ditzaten.
3. Elkarlanean jardun mugimendu feministako ordezkariekin, adituekin eta indarkeria matxistatik bizirik irtendako emakume biktimen kolektibo eta elkarteekin.
4. Azaroaren 25aren bueltan egon daitezkeen ekintzatan parte hartzera animatzea herritarrek.
5. Hau onartzen bada, honen berri ematea herritarrei betiko bideetatik.

¹ Berdintasuna Pandemia Garaian, 2020ko ekaina. Emakunde, Eusko Jaurlaritza.

³ <https://www.berria.eus/bereziak/indarkeria-matxista/mapa>

Besterik gabe, Bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin ~~Orain~~ ardua+izendaturiko ekimen herritarrek proposatutako mozioa ONETSI ETA BERE EGIN DU.

6. URGENTZIAZKO GAIA: ESKAERA ARAMAIOKO OSASUNEO LEHEN MAILAKO ARRETA ZERBITZUARI BURUZ.

Alkateak hitza hartu eta irakurtzen du, prestatu duen idatzia Debagoienako eta Eusko Jaurlaritzako Osasun arduradunei helarazteko, Aramaioko lehen mailako arreta zerbitzuaren egoerak herritarrei sortzen dien ardua eta kezka. Testuak horrela dio, hitzez hitz:

“Aramaioko Udalbatzak bere kezka adierazi nahi du Aramaion Osasuneko lehen mailako arreta zerbitzuarekin gertatzen ari denegatik.

- o Gure udalerriri mediku bat eta erizain bat jomada osoan dagokio legez, baina mediku titularrak baja hartu zuenetik ez dugu izan jomada osoan medikurik. Medikua izan dugunean jomada erdian izan da eta kasu askotan hori ere ez.
- o Inork ez dio Udalari jakinarazi, eta guk dakigula publikoki ez da esan baina orain lehen arreta hori telefonikoa da. Hori murrizketa bat da eta ezinegon handia sortzen ari da gaixoen artean, zeresanik ez pertsona nagusien artean.
- o Gainera, ez dakigu jomada osoan medikurik ez dugulako edo zein den arrazoia, baina medikuak gutxienez 2-3 egunetara deitzen dizu kontsulta telefonikoa egiteko. Horrek ekarri du jende asko minez egotea inongo erantzunik jaso gabe, eta kasu batzuetan ezinagatik larrialdietara jo edo kontsultara joatea zitarik gabe, ezin izan dutelako gehiago minarekin.
- o Azken hilabetean beste pertsona askok, kostata aurrez aurreko kontsulta lortu dutenean, anbulatoriora joan eta medikua ez dagoela ikusi dute, abisurik jaso gabe, eta berriro ere direnak eta ez direnak egin behar izan dute txanda lortzeko. Hau da, ziurgabetasun handiarekin, bertaratu arte ezin da jakin medikua izango den ala ez.

Ulertzen dugu, pandemia egoeran gaudela, eta egoera zaila dela baina jasaten ari garen murrizketa hauek eta komunikazio eta informazio falta honek egoera okertzen ari du gure udalerrian.

Aramaioko Udalak hasieratik bere kolaborazio osoa eskaini die bertako mediku eta erizainari eta orain ere, beraiekin harreman zuzena izan nahian dabil egoera ez okertzeko gehiago.



Hala ere, ezinbestekoa ikusten du jendea informatuta eta ondo artatuta izatea, nahasmenak ezinegonareagotzen duelako beti eta, Koronabirusaz aparte, beste hamaika gaixotasun eta eritasun existitzen jarraitzen dutelako.

Hori dela eta, gure udalerriko anbulatorioen ardura duen OSI DEBAGOIENA OSPITALARI eta honen ardura duen EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN SAILARI honakoak eskatzen dizkio:

1. Legeak ezartzen dituen ratioak errespetatuz mediku bat jomada osoan jartzea berriro gure udalerrian.
2. Osasun Sailaren irizpide berriak zeintzuk diren jakitea eta telefonoz lehen arreta nola ezarri den, zein den egin den sistema aldaketa, idatziz jakinaraztea.
3. Arreta sistema aldatu bada, telefonoz jendea artatzen behar den gehinezko denbora zein den jakitea. Eta murrizketa honek sortzen dituen hutsuneak nola beteko diren jakitea.
4. Medikua edo erizaina ez baldin bada egon behar azken momentuko arrazoiengatik, txanda hartuta daukan jendea abisatzea eta ahalik eta azkarren beste txanda bat ematea.
5. Udalak bertako anbulatorioan ematen diren murrizketa, aldaketa edota moldaketen informazio zuzena izatea, herritarrek ere informatuak mantendu ahal izateko.

Egoera latza da eta elkarlanean ibili beharrean egiten ari zareten kudeaketa honek nahasmen eta ezinegon handia sortzen ari da herritarren artean. Udal honek elkarlana eskaintzen dizue, hori delako bidea egoera latzetatik ateratzeko baina horretarako ezinbestekoa da informazio zuzena izatea eta herritarrei gutxieneko errespetua adieraztea.

Gure egoera aztertu, ulertu eta gehiago ez okertzeko medioak jarri eta gurekin komunikazio zuzena izateko eskaera egitea ezinbesteko zaigu aramaioarren eskubide eta osasunagatik.”

Alkateak hitza ematen dio Cristina Etxenautia Irure zinegotziari, bera izan baita hainbat pertsonekin hitz egiteaz arduratu dena eta, baita ere, Osakidetza hainbatekin kontaktuan jartzeaz. Egindako ahalegin eta kontsulta guztien ondoren, ezin izan du arreta hobetzea bermatuko duen inongo konpromisorik lortu.

Juan Antonio Peña Orobengoa zinegotziak hitza hartu eta adierazten du, ea ez den hobea izango ardura izan dezakeen norbaitekin bilera bat egiteko hitzordua egin eta gauzak azaldu, hitz egin eta ea guztion onurarako izango den irtenbide bat adostu.

Bai alkateak eta bai Cristina Etxenautia zinegotziak adierazten diote, hori egitea ezinezkoa izan zaiela, ez dutela kontaktatu ahal izan, arreta hobetzeko ziurtasuna bermatuko duenik. Iruditzen zaie, eskaera ofiziala eginez gero, indar gehiago egin ahal izango duela udalak, zerbitzua hobetzeko eta hori egiteko ahalmena duen norbaitekin hitz egiteko.

Besterik gabe, Bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin alkateak proposatutako eskaera ONETSI ETA BERE EGIN DU.

7. GALDERAK ETA ESKAERAK.

1. Juan Antonio Peña Orobengoa zinegotziak adierazten du, udaletxe aurreko plaza oso iluna dela ematen duela, ea ez den komeni argi gehiago jartzea.

Iban Herrarte zinegotziak erantzuten dio, aztertuko duela gaia baina, hala ere, gogorarazten du, hori guztia arautua dagoela eta udal elektrikariak gauza horiek jasota izaten dituela.

2. Juan Antonio Peña Orobengoa zinegotziak adierazten du, Barrutia etxearen aurrean eskudela bat jarri dela eta oso aproposa izan dela hori egitea. Hala ere, beste aldean ere eskudela bat jartzea ez komenigarria dela dio, toki hura oso labainkorra omen da.

Gorka Astondoa zinegotziak erantzuten dio, kontuan hartuko duela eta aztertuko duela zer egin daitekeen.

Azkenik, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak bukatutzat eman du osoko bilkura hau, goiburuan adierazitako egunean eta orduan, eta nik Aramaioko bitarteko idazkari-kontuhartzaileak, hala ziurtatzen dut, alkatearen oniritziarekin.